

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onetsitako beste gai batzuk

*Garraio-Hiria handitzeko UEPSren aldaketa-espedientearen hasiera nabarmendu da*

Asteazkena, 2018.eko urriak 31

### Noingo Garraio-Hiria handitzeko UEPSren aldaketa-espedientea onartuta

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartu du, Noingo (Elortz bailara) Garraio-Hiria handitzeko Udalez gaidiko Eragina duen Proiektu Sektorialaren (UEPS) aldaketa-espedientearen izapidetzea hasia. Honek, aeronautikako zortasunak eta Nasuvinsa sozietate publikoak sustatutako 4. fasearen berrantolaketarekin zerikusia du.

Era berean, UEPSaren aldaketa espedientea hogeita hamar egunez jendeaurrean jarri eta aldaketak eragindako udalei entzunaldia emango zaie. Interesa duten pertsonak Landa Garapen, Ingurumena eta Toki Administrazioa Departamentuan (Gonzalez Tablas kalea, 9 zbk. Pamplona / Iruña) kontsulta dezakete eta aipatutako epean egoki ikusten dituzten alegazioak aurkeztu ditzakete. Dokumentua <http://www.ExposicionpublicaOT.navarra.es> webgunean ere kontsulta daiteke.

### Foruzaingoak Altsasun zerbitzua ematen jarraituko du

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran akordio bat onetsi du 2019ko ekainaren 30era arte, pasaden ekaineko data duen, Lehendakari, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia Departamentuak eta Altsasuko Udaletxearen artean, Altsasun Foruzaingoak zenbait zerbitzu eskaintzen jarraitzeko akordioa luzatzea.

Gogorazi beharra dago akordio hau Foruzaingoen bitartekoen gabeziak bultzatuta hartu zen neurri hau. Bi polizien arteko elkarlanaren bitartez gizarteari segurtasun publikorako kalitatezko zerbitzuak eskaintzea bermantzen da, zerbitzu zehatzak zein polizien bitartekoak modu koordinatu eta eraginkorrean emateko.

### Nafarroako Gobernuak “José Lázaro Galdiano” edizio Saria Fulgenio Pimentel eta La Fábrica argitalpenei eman die

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran dekretu bidez onartu du “José Lázaro Galdiano” kalitate editorialeko 2018ko saria Fulgenio Pimentel eta La Fabricari ematea.

Exekutiboak modu honetara, pasaden irailaren 9an epaimahaiak emandako epaia berretsi du. Epaia Fulgenio Pimentel argitaletxeak Casa Encendida eta Mayeosis Fundazioarekin batera editaturiko Berio Molinaren Setras, caligrafia sonora lana saritu zuen, arte liburuaren kalitatean, eta La

Fábrica argitaletxeak plazaraturiko Chema Madoz, obrs maestras liburuaren edizio handitu eta berrikusiak bibliofiloaren liburuaren modalitatean.

### **Andosillako herri-lurraren desafektazioa onartuta**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran “El Lentiscar” inguruan kokatua dagoen Andosilla Udaletxeko herri-lurraren 26.482 m2 desafektatzeko akordioa onartu du, non Motoclub Andolari utziko zaizkion, motocross zirkuitoa legeztatu dadin.